



III LEHEN HEZKUNTZA

5. mailako ikasleak
2. mailakoen irakasle



III DBH

Jasangarritasunerako
eskola diploma

37

2013
UZTAILA

aballarri

EGAPE IKASTOLAKO ALDIZKARIA



KORRIKAREKIN BAT





AGUR 2012-2013 IKASTURTEARI

Duela gutxi beste ikasturte bati jai giroan agur esan diogu. Orain, balantzea egiteko garaia da, hausnarketa lasaia eginez, emaitzak baloratz, eta hurrengo ikasturterra begira hobetu behar diren gauzak kontsideratuz.

Begirada zertxobait atzera botata ezin duguna ukatu da mugitzen ari garen testuinguruak ez digula asko lagundi. Murrizketa hitzaren esangura mingarría hurbiletiik ondo ulertzeko au-kera izan dugu. Baina, hezitzaleok ezin dugu gure zereginan amore eman eta horregatik aurrera bota dugu, zaitasunak gainditzeko borondate tinkoa azalduz.

Modu honetan, Ikastolak bere proiektu nagusiak sendotzen eta zabaltzen jarraitu du. Proiektu hauek lotuta daude pedagogi arloan daramagun berrikuntzarekin eta ikaslegetan erabilten den metodologiarekin. Honek guztiak besteak beste zera erakartzen du: ikasle eta irakasleen arteko talde lana, elkarrengandik ikastea, irakasleen formakuntza eta koordinazioa hobetzea, eleanitzasuna indartzea..., azken batean ikasleen emaitzak hobetzea, eskola-elkartea osoaren asebetetzerako.

Orain oporraldia dator, baina Ikastolak uda garaia hainbat egokitze lan egiteko aprobetxatuko du. Lan horiek barne eta kanpo instalazioei eragingo diete eta erakunde arduradunen arteko elkarlanari esker gauzatuko dira. Horrela, Egapek Urnietako herriari eta bere hiritarrei eskaintzen dien zerbitzuaren kalitatea hobetzen jarraituko du.



ADIÓS AL CURSO 2012-2013

Recientemente nuestra comunidad escolar despedía el curso pasado en medio del natural ambiente festivo y de celebración. Ahora llega el momento de la reflexión sosegada. Es pues tiempo de evaluar con sentido crítico el trabajo realizado, es también la ocasión para establecer nuevos objetivos y pautas de mejora que enriquezcan el proyecto educativo del centro.

En un contexto socioeconómico difícil, Egape ha continuado impulsando y afianzando los proyectos y programas relacionados con la innovación y el cambio, para de esta manera responder adecuadamente a su máximo reto: formar personas para la vida.

La llegada de las vacaciones escolares no supone descanso para la Ikastola, que aprovechará el período estival para realizar mejoras en sus instalaciones. Estos trabajos de acondicionamiento persiguen el objetivo de ofrecer a Urnieta un servicio de la mayor calidad posible.



TUTORETZAK

Ikasturte honetan, aurreko ikasturteetan bezala, astero tutoreek tutoretza saioak aurrera eraman dituzte.

Elkarbizitza gaia sakontzeko gure aurtengo bi ardatz nagusiak hurrengo hauek izan dira: Kooperazioa eta Adimen Emozionala. Gai hauek material desberdinaren bidez jorratu ditugu: ipuinak, fitxak, jokuak...

Prestatzen ditugun ekintzak, gehienetan talde handian eramaeten dira aurrera. Bestetan, beharrezkoa denean, banakako tutoretzak erabiltzen ditugu; hau da, tutoreak gatazka batean murgilduta dauden ikasleekin elkarritzekat izaten diituenean, gatazka eraldatzen laguntzeko. Tutoreak, giza- abileziak lortu eta eta konpromezuak hartzen erakutsi egiten dizkie ikasleei.

Durante este curso, como en años anteriores, los tutores-as han llevado a la práctica sesiones semanales de tutoría con el alumnado.

Los dos ejes principales de trabajo en el ámbito de la Convivencia han sido la Inteligencia Emocional y la Cooperación. Estos temas han sido desarrollados mediante diversos materiales: cuentos, fichas, juegos...



Las actividades que preparamos normalmente son llevadas a cabo en grupo grande. En algunas ocasiones, cuando es necesario, nos servimos de las tutorías a nivel individual, es decir, cuando el tutor-a dialoga con los alumnos que se encuentran sumidos en un conflicto, con el fin de ayudarles a solucionarlo. El tutor-a enseña a los alumnos-as habilidades sociales y a cumplir compromisos.

LH 1. zikloa

5. mailako ikasleak 2. mailakoen irakasle

Bigarren eta bosgarren mailan, Eguzki Sistema gaia lantzen dela aprobetxatz, martxoan, 5. mailako ikasleek 2. mailakooi planeten inguruko “power point” batzuk azaldu zizkigutent eta baita zenbait bitxikeria kontatu ere. Guk ere, bigarren mailakook, gaiaren inguruan egindako hainbat eskulanen erakusketa presatu genuen. Denok oso gustura egon ginen elkartruke honetan.



Aprovechando que en 2º y 5º se trabaja el sistema solar , los alumn@s de 5º nos hicieron una presentación de power point sobre los planetas a los de 2º.

Los de 2º prepararon una exposición sobre el tema. Este intercambio fue muy gratificante para tod@s.

Lehenengo mailetako geletan hamaiketako osasuntsua

Maiatzean, “Gorputza zain dezagun” gaiaren barruan, lehenengo mailetako ikasleek hamaiketako osasuntsua prestatu eta jan dute. Aurretik, dieta orekatua zertan datzan elikagaien piramidearen laguntzaz ikasi dute. Ondoren, ikasle bakoitzak bere eguneroko dieta aztertu eta gero, gurasoei etxearen eraman behar duen dieta osasuntsuarekin jarraitzeko eskutitz bat idatzi die.

Los alumnos de primero y el almuerzo saludable

En Mayo, en relación al tema “Gorputza zain dezagun”-“Cuidemos nuestro cuerpo”, los alumnos de primer curso de Primaria, han preparado y comido un almuerzo saludable. Con anterioridad, han aprendido lo que es una dieta equilibrada con la ayuda de la pirámide alimentaria. Para finalizar, han enviado una carta con recomendaciones dietéticas a su familia.



LH 2. zikloa



Antzerkia 4. mailan

2012-2013 ikasturtean zehar, 4. mailako ikasleok, antzerki saioak prestatzen aritu gara Jose Mari Berasategiren zuzendaritzapean. Landutako antzezlana Hernaniko Elizatxo Ikastetxeen aurkeztek aukera izan genuen. Oso urduri geunden, baina oso ondo atera zitzaigun guztia eta txalo zaparrada ederra jaso genuen. Ondoren, ikastolan beste emanaldi bat izan genuen eta azkena, ekainean Saroben, guraso eta ikasleen aurrean.

Durante el curso 2012-2013, los alumnos de 4ºcurso hemos trabajado en el Taller de Teatro la obra "EL CIRCO" bajo la dirección de Jose Mari Berasategi. Después de actuar en la Ikastola Elizatxo de Hernani, hicimos la presentación en nuestra Ikastola a los alumnos de Infantil, y en junio, en Sarobe para los padres/madres y alumnos/as.

LH 3. zikloa



LIBRUAREN EGUNA

Aurten ere, urtero bezala, 3. zikloko ikasleek apirilaren 23an liburuaren eguna ospatu dute ekintza ugari antolatzu.

Goizez, 5. mailako ikasleek hainbat ipuin entzuteko aukera izan zuten. Ipuin kontalariak irakasleak izan ziren. Euskaraz eta Gaztelaniaz kontatu ziren ipuinak ikasleen gozamenerako.

6. mailakoengana, berriz, JM Olaizola "Txiliku" idazlea gerturatu zen. Ikasturtean zehar irakurritako "OSABA BIN FLOREN" eta "ZALDUN BELTZAK" liburuen inguruan azalpen interesgarriak eman zizkien eta ederki pasa zuten hari entzunez.

Arratsaldean, liburu azoka antolatu zen zikloko ikasleen artean. Azokaren helburuak liburu trukaketa egitea, ikasleen arteko iritziaz partekatzea, irakurketarekin gozatzea eta irakurzaletasuna sustatzea izan ziren.

Egun ederra pasa zuten guztiek elkarrekin!!

EL DÍA DEL LIBRO

Un año más hemos celebrado en la ikastola el día del libro. Por la mañana el alumnado de 5º ha podido escuchar diferentes historias contadas por el profesorado. En 6º tuvieron oportunidad de charlar con JM Olaizola "Txiliku" sobre los libros de este autor que se han leído a lo largo del curso.

Por la tarde se organizó un mercadillo de libros entre todo el alumnado del tercer ciclo. Los objetivos de esta actividad fueron: el intercambio de libros, compartir opiniones, gozar con la lectura y fomentar la afición a ella. ¡Fue un gran día!

HH 3 urtekoak



GORA ANTZERKIA!

Maiatzaren 15ean "OILANDA MAGIKOAK" antzerkia ikustera gonbitatu gintuzten bigarren mailakoek. Hura poza gurea! Bederatzi t'erditarako hantxe geunden antzerki aretoan eserita prest isil-isilik emanaldia ikusteko irrikitan. Emanaldia polita, arina eta entretenigarria izan zen oso. Jantzi bizi eta koloretsuen aldaketa etengabeak mugimendua eman zion saioari eta aldi berean haueren interesa eta jakin mina piztu zuen. Gustura egon ginen, saio bikaina, zorionak eta hurrengo arte lagunak!!

El 15 de mayo los alumnos de 2º curso nos invitaron a ver la representación de la obra de teatro "OILANDA MAGIKOAK". ¡Qué ilusión! A las nueve y media ya estábamos en la sala de teatro, sentados y preparados para ver la función. La obra fue divertida y muy entretenida. El continuo cambio de personajes así como el colorido del vestuario en el escenario mantuvo el interés de los niños durante toda la representación. ¡Felicidades! nos gustó mucho vuestra actuación. Hasta la próxima, compañeros.



HH 4 urtekoak

Ikasle, irakasle, guraso eta aitona-amonekin lankidetzen

Bigarren hiruhilekoaren bukaeran, 4 urteko gelako haurrak lanbideen gaiaren inguruan aritu ginen lanean. Egun horietan, gurasoen lanbideak eta aitona-amonen lanbideak ezagutu genituen.

Haur bakotzak bere gurasoek zertan lan egiten zuten etxean jaso eta gelan besteei azaldu zien. Ondoren gurasoentzako lanbideen bilduma osatu genuen. Antzinako lanbideak ezagutzen laguntzeko aitona baten bisita izan genuen. Berak bere garaian zertan lan egiten zuen, zein tresna erabiltzen zitzuten eta Urnieta nolakoa zen azaldu zigun. Horrela lehengo eta oraingo Urnietaren arteko desberdintasunak ikusi genituen.

Beste egun batean, Zerain joan ginen herria ezagutu eta bertako museoa ikustera. Bertan antzinako lanbideetan erabiltzen ziren tresnak ikusi genituen. Egun ederra pasa genuen!

Bukatzeko hiru astetan zehar ikasitakoarekin eta bildutako materialarekin gurasoentzat "Lanbideen erakusketa" prestatu genuen eta ikustera gonbidatu genituen. Interesgarria eta polita geratu zen benetan!



HH 5 urtekoak



Apirilaren 18an Aitor erlezaina eterri zen 5 urtekoon gelara. Erlekin lanean aritzen denean erabilten duen jantzia soinean zuela sartu zenean, ikusgarria izan zen.

Ipuin baten bitartez, erle motak eta eraulautza barruan bakoitzak duen ardura erakutsi zizkigun. Lore hautsa, argizaria, jalea eta eztia uitu, usaindu eta dastatzeko aukera izan genuen. Benetako eraulautza bat, bere abaraskak eta barruan lanean ari ziren erleak ere ikusi genituen.

Bukatzeko, argizarizko kandela bana egin genuen etxera eramateko. Baino ez edonolako kandila! Sorgindutako kandelak ziren! Oso ondo pasa genuen eta asko ikasi genuen.



“Eguna andereñoarekin paszen dugu, baina gurasoak eta erleen munduko adituak ere gelan izan ditugu gurekin. Halere guretzat gustukoena gure ikastola-k handiekin aritzea da”.

Jasangarritasunerako eskola diploma

Ikasturtearen bukaerarekin DBHko etapari Eskola Jasangarriaren alde egin duen lana saritzeko ziurtagiria eman zioten. Diploma hori Iñigo Urkullu lehendakariengandik eskuratu zuen zuzendariak Busturiako Madariaga Torrearen egoitzan ospatu zen ekitaldian. Bertan Hezkuntza sailburua den Cristina Uriarte eta Ingurumen sailburua den Ana Oregik ere parte hartu zuten, beste Jaurlaritzako hainbat sailbururekin batera. Zuzendariarekin batera bertaratu ziren Eskola Agenda 21 Programaren arduraduna, Xabier Basauri, eta Urnieta alkatea, Mikel Pagola.

Ziurtagiri hau AGENDA 21 Proietkua sustatzen duen CEIDA erakundeak autonomi erkidegoko ikastetxeei ematen dien diploma da, ingurumen aldeko konpromezu tinkoa eta lan zehatza egiten denean.

Hauek dira, bestek beste, ziurtagiria jasotzeko ikastetxeak egin dituen lan mota ezberdinak: Agenda 21 Programaren dokumentazioa ondo antolatu eta bera garatzeko baliabide ezberdinak bideratu, Agenda 21 Programan sakontzen eta hobetzen ahalegindu, eskola-komunitateko partaideen proposamenak jasotzeko estrategiak antolatu, ikastetxeko proietku ezberdinen arteko lotura eta koherentzia bilatu, ikasleek ingurumen alde egiten dute lana eta hartzen dituzten ardurak baloratu, ingurumen arazoei buruzko sentsibilizazio-plana zabaldu, edo ikuspegi lokalaz gain, planetaren dimentsioa ere landu.

Ikastola zeharo pozik eta asebeteta agertzen da ikasturtez ikasturte ingurumen alde egiten ari den lanak errekonozimendua izan duelako. Hemendik aurrera erronka izango da orain arte egindakoaren ildotik indarberrituta jarraitzea, jasangarritasunarekiko konpromezuak horrela eskatzen duelako.



Con ocasión de la celebración del día del Medio Ambiente, el lehendakari Iñigo Urkullu entregó al director de Secundaria el diploma que reconoce y acredita el trabajo que en el marco del Programa Escolar Agenda 21 viene desarrollando la Ikastola en favor de la sostenibilidad.

En la foto, un momento del acto que transcurrió en las instalaciones de Torre Madariaga en Busturia (Bizkaia), que también contó con la presencia de la consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, Cristina Uriarte, y con la consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, Ana Oregi.

ANTZEZLANA INGELESEZ

Ikastolaren hezkuntza proiettuak espresuki azpimarratzen du eleaniztasunari ematen dion garrantzia. Hori dela eta ingelesa ikaslekin lantzeko, ikastetxeak berazko proiettuak ditu Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta baita Bigarren Hezkuntzan ere. Proiettu hauen helburu berezi bat ikasleen ahozko komunikazioa jorratzea da. Bestalde ikastetxeak metodologia kolaborativoaren aldeko apostua egin du, horrela ikasleak bere heziketaren eragile zuzenak bilakatzen direlarik.

Testuinguru honetan DBH 2. mailako ikastalde batek antzerki lanarena ingelesez egiteko ekimena bere gain hartu zuen. Ideia Naroa Agirrenera izan zen. Gidoia bere ikaskidea den Leire González de San Pedro idatzi zuen, eta berak ere gelako kide guztien eginbeharren banaketa antolatu zuen.

Antzezlanera William Shakespeareren "Romeo and Juliet" obra klasikoa izan zen, baina ikasleek egokituta modu aske batean. Entsegua Ixiar Artola irakaslek zuzendu zituen. Ikasturte bukaeran Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleek obra hau ikusteko aukera izan zuten eta oso gustora geratu ziren aktoreen lanarekin. Beraz, esperientzia aberasgarria izan zenez, seguru etorkizunean errepikatzeko aukera izango dugula.



En la foto, alumnos y alumnas de 2º ESO en un momento de la representación en inglés de la obra "Romeo y Julieta" que se escenificó, en versión libre, en la sala de teatro del centro de Primaria ante el alumnado de 5º nivel. La idea original partió de Naroa Agirre, mientras que el guión y reparto de papeles corrió a cargo de Leire González de San Pedro. La dirección de la obra estuvo en manos de la profesora Ixiar Artola, quien se mostró satisfecha de la iniciativa de sus discípulos, que se implicaron totalmente en esta muestra de teatro colaborativo. El alumnado asistente reconoció con un prolongado aplauso el empeño de los voluntarios actores y actrices.



Hiru etorri berriak gara

Robert, Saad eta Jhoselin gara, ikasle etorri berriak

Ni **Jhoselin** naiz eta 14 urte ditut. Boliviakoa naiz. Duela bi urte etorri nintzen Urnietara. Hasieran, hona gentozela esan zidate-nean negar egin nuen, gauza berrien aurrean urduri eta beldurrez sentitu nintzen. Baino, orain oso ondo nago, jendeak ondo hartu nau, gustura sentitzen naiz. Lagun berri asko egin ditut, hemen nagoenetik asko lagundu didatenak.

Ni **Robert** naiz eta 14 urte ditut. Dominikar Errepublikakoa naiz. Duela urte bete etorri nintzen Urnietara bizitzera. Niretzat ez da erraza izan hemen adaptatzea lotsatia naizelako ezagutzen ez

dudan jendearekin. Orain aldiz, Jhoselinen moduan pozik nago, oso gustura.

Ni **Saad** naiz eta 15 urte ditut. Urnietan hiru urte daramatzat, baina jaiotzez Marokokoa naiz. Hasiera batean, ez neki zer gertatuko zen ez eta nora nentoren, oso urduri nengoan. Orain ondo nago, hemen oihu naiz.

Euskara hizkuntza berria zen guretzat: Saadi erraza egin zi-tzaion, Roberti zaila eta niri, Jhoselini, zaila, baina jada nahiko ulertzen dut, aldiz, hitz egitea zail egiten zait.

laguntzaileak

kutxa gizarte ekintza



ausolan
auzo lagun

Uribarri Etorbidea, 35
Tel. 943 79 46 11
ARRASATE

Poli. Industrialdea
Gavira kalea, 22-24
Tel. 943 63 30 86 IRUN

Bikaintsuna lortu nahian eta etorkizuneko erronkak bere eginez, 1969tik hona aitzindaritzari eusteko bidea eman digun enpresa-kultura galdu gabe, Auzo Lagun Ausolanen sartu da. Talde handia da Ausolan, eta Mondragonekin, bere lidergoa sendotu nahi du taldeentzako sukaldaritzaz-zerbitzuetan, zerbitzu soziosanitariorietan, eta erakin eta lokalak garbitzeko zerbitzuan.

**Ausolanen
Auzo Lagun indartsuago**



Aballarri Guraso Elkartearen etxeko lanak

Aballari Guraso Elkartetik jakitera eman nahi di-
zuegu ikasturtean zehar, Egape ikastolako gura-
so zein ikasleentzat, antolatu eta egiten duguna:

Irailean, ikasturte berriari hasiera eman bezain
pronto, Haurtzaindegiko zerbitzua martxan jarri
genuen 14:30etik 16:30era.

Urritik maiatzera bitarte, hilean behin eta Ainhoa Garcíaren eskutik, arrakasta handia izan zu-
ten, gurasoentzako tailerrak antolatu genituen.

Euskararen Egunean eta San Sebastian egu-
neko danbor hotsen ondoren, denon artean horren estima handia
duen edateko txokolate goxo-goxoa prestatu genuen.

Aste Santuan, 3 urtetik 8 urte bitarteko ikasleentzako, Estitxu Vi-
llanuevako tailerrak antolatu zituen.

Maiatzean, 2.mailako gurasoen laguntzaz, Benjamin Festa os-
patu genuen.

Eta ikasturtei amaiera emateko, irailaren antzera, Haurtzain-
degi zerbitzua eskeintzen dugu 14:30 etik 16:30era.



Dakizunez, Aballarri Guraso Elkarteak udale-
txetik eta Diputazioko jasotako dirulaguntzari es-
ker aurrera jarraitzen du. Diru hau, Egapen anto-
latzen diren ikastaro, festa eta emanaldietan in-
bertitzen da.

Gaur egun, Aballarri Guraso Elkartearen zere-
gitea, Urnieta Udalak antolatzen duen Errege
Zaldiketa eta San Miel jaietara ere zabalduta da-
go.

Gure aldetik, ahalik eta ondoen egiten saiatzen
gara, baina zerbaitetan hobetu dezakegula iruditzen bazaizu, zu-
re proposamenak eta ekarpenak ongi etorriak izango dira. Aba-
llarritik gonbidapena luzatu nahi dizuegu, guztiona den Guraso
Elkarte honetan parte har dezazu.

Eta bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu urtean zehar la-
guntzen eta gure proiektua aurrera eramateko gurekin lanean ari-
tu diren guraso guztiei.

Aballarri ha hecho los deberes

Nuestra primera función cuando se em-
pieza el curso es la de ofrecer el servicio
de guardería durante todo el mes de sep-
tiembre de 14:30 a 16:30.

El curso pasado ABALLARRI apoyó el
taller para padres que se está ofreciendo
desde el mes de octubre hasta mayo, un
jueves al mes y lo imparte Ainhoa García
en nuestro local. El taller tuvo muy buena
acogida y es por eso que este año se ha
repetido.

Algo “mítico” que ofrece ABALLARRI
son las chocolatadas a los alumnos, pro-
fesores y padres. La primera es en el día
del euskera, a primeros de diciembre. La
segunda, en el día de San Sebastián, ésta
en los últimos años se ha cambiado por
un bollo y un zumo y se les ha ofrecido só-
lo a los participantes de la tamborrada. La
tercera y última que se ofrece es en car-
navales.

Para el mes de febrero o marzo se ofre-

cen los servicios de ludoteca para los días
que la ikastola tiene propuesta sus char-
las

El compromiso de ABALLARRI con el
día del padre y de la madre sigue adelante
intentando que cada año sea una sor-
presa el regalo que los niños de 3 a 5 años
dan a sus padres.

Como novedad, este año se propuso un
taller para niños de entre 3 y 8 años para
los días de Semana Santa y hay que decir
que hemos salido contentos y que esper-
ramos que sea un servicio que se pueda
repetir en próximos cursos. Este taller lo
ha dado Estitxu Villanueva.

En mayo nos ponemos con la Benjamín
Kirol Jaia, siendo este segundo curso jun-
to con la ikastola los que lo organizamos.

Y se acaba el curso como lo empeza-
mos, ofreciendo el servicio de guardería
del mes de junio de 14:30 a 16:30

Como todos sabréis la asociación de-

pende de las subvenciones que recibe de
Diputación y del ayuntamiento de Urnieta,
y toda esa subvención va destinada a to-
do lo que os hemos contado anteriormente.

Hay que decir que ABALLARRI no sólo
se centra en la ikastola, ya que desde hace
un par de años está siendo llamada por
el ayuntamiento para colaborar en las fies-
tas de San Miguel y en la cabalgata de Re-
yes y en todo lo que el ayuntamiento cree
que puedan estar las asociaciones del
pueblo, allí está ABALLARRI.

Comentar que aquí estamos abiertos a
cualquier sugerencia que nos presenten,
tanto padres, alumnos como profesores.
Desde ABALLARRI lo intentamos hacer lo
mejor posible y estamos deseando mejor-
ar, para ello apórtanos tus ideas y reali-
zalo junto a nosotros. Por último, agrade-
cer a todas esas madres y padres que nos
ayudan siempre que lo necesitamos.



Xuabe, xuabe, etxearen
bezala...



2. mailakoak Getarirako
bidean



5 urteko sukaldariak...



3-4 urtekoak Miami Beach-en
(Zarauzko hondartzan)



5. maila Onddi mendiko
tontorretik



Mairubaratz:
baga, biga higa...



Titiriaria jaialdia.
6. maila, Tolosan



Obladi, oblada...
The Beatles (6. maila Saroben)



Antia lehiaketaren
irabazleak: zorionak!



Tarero, tarero... Egape ikastolako danbor joleak.
Pram pa pam, pram pa pan..., pa pa pa pa...



Urnietaiko kaldereroak,
Gora Inauteriak!



Astelehena kriston bixamona,
asteartea... ez noa lanera,
ez noa lanera...



Ikastolako irrati esatariak:
notizi presku-preskue



Ikasturte bukaerako jaialdia



Egape Ikastola
Korrikarekin bat!



Badator, badator Korrika: Ko-ri-ka, Ko-ri-ka!



Judo erakustaldia



Maite zaitut, maite maite
zaitut... Pirritx



Santa Ageda. 6. maila



Xake



Leire eta Olatz
Euskal Herriko kantu finalean

DBH 2012/13 IKASTURTEARI ATZERA BEGIRA

► Trankatx erreka:

Egape BHIn konprometituta gaude ingurumenaren zainketan, eta proiektu ezberdinien eskutik Trankatx erreken egoera aztertzen irten ziren 1. eta 4. mailako ikasleak.



► Beire:

Ikasturte hasieran 1. mailako ikasleak Beirera joan ziren bi egun pasatzera. Elkarrekin jolasteaz gain mahatsa bildu, muztioa egin eta ardoaren ekoizpen prozesuaren berri jaso zuten.

► Eñaut Elorrieta:

Hizkuntza Normalkuntza Planaren barruan Eñaut Elorrieta ekarri genuen ikastolara, 3. mailakoekin konpartitu zituen bere kantak eta esperientziak.

► Antia Literatur lehiaketa:

Aurten, Egape Ikastolako ikasleek (DBH eta LH) lehiaketako sari guztiak bereganatu dituzte: Leire Erasun, Malen Ezeiza Edith Giganto, Nagore Alonso, Iñaki Moreno eta Xabier Irastorza.



► Bertso jaialdia:

Urtero bezala, "Gu ere bertsolari" proiektuaren ikasturte amaierako bertso jaialdian parte hartu zuten 1. mailakoek.

► Zumaia:

4. mailako ikasleak, Zumaiako geoparkean, flyscha eta Euskal Herriko historia geologikoa aztertzeko leku paregabean.

► Ikasbidaia:

4. mailakoek bidaia zoragarria egin zuten Italiatik zehar: Errroma, Florentzia, Ponpeia, Toskana... Argazkian Errromako Panteoaren aurrean ageri dira.

► Korrika:

Korrikako lekukoa eraman zuten Beñátek eta Kataishak, Egapek hartutako kilometroan.

BETIRARTE!



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Urnieta
Idiazabal, 20
943 306 310



Urnieta Udalak
diruz lagundutako aldizkaria